

I K A S T A R O A

SUIZIDIOAREN PREBENTZIOA:

GATEKEEPER 1. MAILAKO PROGRAMA




Haur, Nerabe eta Gazteen
Euskal Behatokia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO





SUIZIDIOAREN PREBENTZIOA: GATEKEEPER 1. MAILAKO PROGRAMA

DONOSTIA

 **Noiz:**
2026ko apirilaren
21ean eta 28an

 **Non:**
CRAJ, Anoeta 28

 **Ikasle kopurua:**
20 pertsona

BILBO

 **Noiz:**
2026ko apirilaren
22an eta 29an

 **Non:**
Uriortu kalea, 11 – behea

 **Ikasle kopurua:**
20 pertsona

 **Hizkuntza:**
Euskara

 **Ordutegia:**
09:00etatik 14:00etara

 **Izena emateko epea:**
martxoaren 23tik 31ra

Izena emateko:

www.gaztebehatokia.euskadi.eus



Helburu orokorra:

Helburu orokorra da profesionalak gazteengan suizidio jokabidearen alarma-egoerak antzematea, eta behar bezala erantzuteko eta osasun zerbitzu espezializatuera bideratzeko gaitasunak eskuratzea.

Helburu espezifikoak:

1. Suizidioari eta suizidio jokabideei buruzko ezagutzak eskaintzea, fidagarriak eta eskuragarri dauden ebidentzia zientifikoetan oinarrituta.
2. Suizidioaren prebentzioaren eraginkortasunari buruzko jarrera positiboa garatzea.
3. Suizidioaren prebentzioan jarrera aktiboa hartzeko errezeloa kentzea, bai eta jokabide horien alde egiten ez duten aurreiritziak aldatzea ere.
4. Autoeraginkortasun handiagoa garatzea suizidio arrisku-egoeretan egoki esku-hartzeko.
5. Suizidio jokabidearen arrisku egoeretarako jarduketa-protokolo sendoak garatzeko ezagutzak eskuratzea.



≡ Metodologia:

Alde batetik, parte-hartzaileek irakatsitako ezagutzak ulertzeko eta aplikatzeko oinarritzko ezagutzak eskura ditzaten, materiaren eduki teorikoak emango dira. Metodologia honek irakasgaiaren edukiak irakasleak ahoz aurkeztera bideratzen badu ere funtsean, ikasleek ezagutzaren eraikuntza sustatzeko helburuarekin elkarrekintza eta parte-hartze aktiboa sustatuko dira.

Bestalde, parte-hartzaileek azaldutako gaitasunak eskura ditzaten, bigarren saioan hainbat ariketa praktiko egingo dira gatekeeper gaitasunak lantzeko.



≡ Edukiak:

1. Suizidioari buruzko informazio soziodemografikoa eta suizidioaren prebentzioari buruzko sarrera.

- 1.1 Suizidio bidezko heriotza gaztaroan.
- 1.2. Suizidio-saiakeren, ideazio suizidaren eta autolesio ez suizidaren prebalentzia.
- 1.3. Hasteko adina eta garapena.
- 1.4. Sexua.
- 1.5. Sexu-orientazioa eta genero-identitatea.
- 1.6. Suizidioaren prebentzioa.



≡ Edukiak:

2. Suizidio jokabidearen kontzeptualizazioa eta karakterizazioa.

- 2.1. Suizidioa.
- 2.2. Suizidio saiakera.
- 2.3. Ideazio suizida.
- 2.4. Suizidio jokabidea.
- 2.5. Autolesioa eta autolesio ez-suizida.
- 2.6. Posbentzioa.

3. Suizidioari buruzko mitoak eta sinesmenak.

- 3.1. Suizidioari buruzko mitoak eta uste okerrak.
- 3.2. Suizidioaren egiak.



≡ Edukiak:

4. Jokabide suizidaren arrisku-faktoreak eta babes-faktoreak.

- 4.1. Ideazio suizida, autolesioa, suizidio saiakerak eta suizidio-ahalmena.
- 4.2. Psikopatologia.
- 4.3. Alkohola eta drogen kontsumoa.
- 4.4. Aurrekari historikoak.
- 4.5. Bullyinga.
- 4.6. Bide hilgarrietarako sarbidea.
- 4.7. Komunikabideak eta Internet.
- 4.8. Sexua.
- 4.9. Babes-faktoreak.



≡ Edukiak:

5. Suizidio jokabidearen alarma-seinaleak.

5.1. Suizidioaren alarma seinaleen SUPERA eredua.

6. Suizidioa prebenitzeko baliabide gehigarriak.

6.1. Web baliabideak.

6.2. Telefonoak.

6.3. Gomendio bibliografikoak.



≡ Edukiak:

7. Suizidio jokabidea prebenitzeko gatekeeper gaitasunak.

7.1. Gatekeeper figuraren aurkezpena eta gatekeeper-etan oinarritutako prebentzio-programen aurkezpena.

- ✓ Suizidio jokabidea erakusten duen pertsonarekin harremanetan jartzeko trebetasunak.
- ✓ Suizidio jokabideak eztabaidatzeko trebetasunak.
- ✓ Krisian esku hartzea.
- ✓ Laguntza bila gidatzeko trebetasunak.
- ✓ Osasun zerbitzu espezializatueta laguntzeko gaitasunak.



Hartzaileak:

Lehentasuna izango dute **haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten edo laguntzen duten pertsonak** (erakundeetan, elkarteetan, administrazio publikoetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntariotzan...), hala nola:

- ✓ **Hezkuntza ez-formaleko profesionalak** (gazte informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak eta aisialdiko elkarteak, baita beste erakunde batzuk ere).
- ✓ **Gizarte-eta familia-hezitzaileak.**
- ✓ **Hezkuntza formaleko profesionalak** (orientatzaileak eta irakasleak).

Izena emateko **hurrenkera** ere hartuko da kontuan..



Haur, Nerabe eta Gazteen
Euskal Behatokia

Irakasleak:

Jon García-Ormaza

OSAKIDETZAKO psikiatra; Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean suizidioaren ikerketaren arduraduna; Biobizkaia Osasun Mentaleko ikerketa taldeko kidea; neurozientzietan doktorea eta EHUKo Neurozientzien Saileko irakasle elkartua.

Alexander Muela

Psikologian doktorea eta EHUKo Psikologia Fakultateko irakasle titularra. Suizidioaren prebentzioarekin lotutako hainbat ikerketa-proiektutan parte hartu du eta ikerketa-arlo horri lotutako hainbat argitalpen argitaratu ditu.

Erakunde antolatzailea:

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA > Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritza > Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa Saila > Eusko Jaurlaritza.

☎ 94 403 16 45

✉ gaztebehatokia@euskadi.eus